

9. Kostuak

Kostuei dagokienez, bi egitura mota daude: balioan oinarritutako negozio-ereduak eta kostuak bultzatutakoak. Gure egitura mota kostuak bultzatutako egitura izango litzateke, kostuak minimizatzen saiatuko ginatekeelako.

Kostuak bi taldetan banatzen dira: kostu finkoak eta aldakorak: IV-en kostu finkoak lokalaren alokairua, webgunearen hostinga (Nagore Rodriguez arduraduna) eta txipak egiteko erabili beharko ditugun tresneriak/makineria izango lirateke eta kostu aldakorak Multiópticas eta Alain Afflelou-ei erositako betaurrekoak eta txip-aren egitura egiteko beharrezko den materiala izango lirateke. Azken hauek salmenta eta beraz, produkzio-bolumenaren araberakoak dira.